

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/4/23 | 322

- Denboraren bankua Alkizan
- Aste iraultzailea apirilaren 26tik 29ra
- Auzolandegi digitalak euskaraz
- Ahotsak.com Tolosaldeko hizkera biltzen
- Koldo Alonso motor gidaria bikain

Hezkuntza eredu
hirueleduna
zer diote ikastetxeek?



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiartxe, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Hezkuntza eredu hirueledunari buzuko iritzi bilketa

Martxoan aurkeztu zuen Isabel Celaá hezkuntza sailburuak hezkuntza eredu hirueledunaren egitasmoa. Aurkezpen hartan, proposamenaren marko orokorra azaldu zuen, nahikoa, mugimendu euskaltzale zein abertzaleen kritikak pizteko. Eredu berriak zuzenki eragingo dituen ikastetxeak aldiz, ezer esan aurretik proposamenari buruzko zehaztapen gehiagoren zain daude. Dena den, galdekatutako Tolosako ikastetxeek programa eleanitzek utzitako emaitza onak baieztatu dituzte, eta euskara hizkuntza gutxitua izanik, gaztelera eta ingeleraren maila berean jartzea ez dela zuzena aitortzera ausartu dira.

8-11. orrialdeak

«Hona ekuadortar ugari etorri da, han bizimodurik ez zuelako. Hemen paperik gabe, beldurrez, ezkutuan dabilta. Nazioarteak Ekuadorreko gobernuari, han bertan lana sortzen lagundu beharko lioke».

Elkarrizketa: Joxe Mari Garmendia

16-18. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Ainhoa Jauregi	4-5
	Normalizazioa: Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina	6-7
	Eskualdeko albisteak: Denboraren Bankua sortu dute Alkizan	12-13
	Eskualdeko albisteak: Aste Iraultzaiela apirilaren 26tik 29ra	14-15
	Zintzilik: Auzolan digitalak euskaraz	19
	Kultura: Ahotsak.com eskualdeko hizketa eta ahozko ondarea biltzen	20-21
	Kirol salta: Koldo Alonso motor gidaria bikain	22-23

Ai, amalurra!



Ainhoa Jauregi
Biologoa

Honela dio Jose Larralde kantautore argentinarraren abestietariko batek:

“Qué triste es cantarle al viento cuando hay que cantarle al Hombre, menos mal que el viento sabe demasiao pa´ que se asombre...”

Kantu hori entzuten dudan bakoitzean eta jarraian aipatuko ditudan hainbat egunkarrietan argitaraturiko zenbait artikuluek, zera gogorarazten didate: Gure gizarte kontsumitzaile honek bere horretan, entzungor, jarraitzeko asmoa duela, bizitoki bakarra dugun Lurraren muga biofisikoak onartu gabe. Izadiaren gainetik jarri nahi duen gizarteak ez du etorkizun luzerik.

El Diario Vasco egunkarian 2009ko azaroaren 12an argitaraturiko artikulua batean zera zioen Iñaki Barrón de Angoitik, Unión Internacional de Ferrocarrileseko abiadura handiko zuzendariak: euskal Y-arekin Donostiatik Bilbora orduerdian iritsiko ginatkeela edo 5 orduren buruan Eiffel Dorrearen parera.

El Paísek, aldiz, 2008ko

martxoaren 14an argitaraturiko artikulua batean:

Batetik, Bizkaitik igarotzen diren A-8 autobidearen 22km-tan hirugarren bidea zabaldu nahi dela (Basauri eta lurreta artean); Gipuzkoan, berriz, A-8 errepidearen 53 km-tan. Kontuan izan behar dugu, A-8 autobidearen Zarautz-Donostia tartean, egunero 35.000 ibilgailu igarotzen direla, BIDEGlren arabera.

Bestetik, Supersur-a, A-8 autobidea arintzeko asmoz egin nahi dela azaltzen zuen. Bizkaiko Diputazioaren uste-tan, egunero A-8ari, Bilboko metropoli-barrutiaren zatian, 42.000 ibilgailu kenduko litzeki.

Noticias de Álavan 2009ko otsailaren 16an, aurreko Eusko Jaurlaritzak eginiko aipamen bat agertzen zaigu: AHTri esker, egunero errepideetatik 6.000 auto eta 1.200 kamioi aterako liratekeela, ondorioz, urtero atmosferara 25.805 tona CO₂ gutxiago isurtzea lortuko litzatekeelarik.

Beraz, AHTrekin Donostiatik Bilbora orduerdi batean iritsiko bagara, urtean 25.805 tona CO₂ gutxiago aireratzen badira, eta hein batean, errepideetako arazoa konpontzen bada, zertarako egin nahi dira Supersur errepidea eta Bilbo-Behobia autobidearen (A-8) hirugarren bidea? Ba, AHTk ezin duelako ibilgailuz gainezka dauden errepide horien arazoa konpondu.

Bestalde, errepide berri gehiago egiteak, hasiera batean konpon ditzake ibilgailuz gainezka dauden errepide horien arazoa. Baina horrek aldi berean gurrpil zoro ba-

tean sartarazten gaitu: Lehenik, denboraren poderioz autotobide berri horiek ere autoz betetzen amaituko dutelako, zaharkituagoak gelditu diren errepideekin gertatu ohi izan den bezala. Bigarrenik, azpiegitura gehiago egiteak (errepideak, AHT...) izaki bizidunontzako, gizakiok barne, hain beharrezkoak ditugun ekosistema emankorren azalera murriztea dakar, guztion kalterako. Eta azkenik, errepide gehiago egiteak erregai fosilez baliatzen diren ibilgailuak ugaritzea dakar, atmosferara CO₂ gas kantitate handiagoak isuriz (ikus hurrengo paragrafoa).

Egunero Supersur-etik igaroko liritekeen 42.000 ibilgailuk, urtean atmosferara zenbat tona CO₂ aireratuko luketen jakiteko, "Investigación y Ciencia" aldizkariak 2005eko irailean argitaraturiko adibide bat izango dugu gogoan: "Auto batek 100 km-ko 10 litro erregai kontsumitzen baditu eta urtean 13.000 km egiten baditu, urtean 1.300 litro gasolina erosi beharko liriteke. Autoak erregai hori guztia erretzean, airera 3 tona CO₂ isuriko litzuke (litro bat gasolina erretzean 2,4kg CO₂ aireratzen dira)". Beraz: 42.000 ibilgailu x 3 tona CO₂ ibilgailu bakoitzeko = 126.000 tona CO₂ aireratuko lukete urtean Supersur-etik igaroko liritekeen 42.000 ibilgailuek; eta hori A-8aren hirugarren bidearen zabalkuntza kontuan izan gabe.

Adibide horretan aipatzen dugu 100 km-ko 10 litro erregai kontsumitzen direla eta hori ez da gehiegizko kan-

titatea. Izan ere, Supersur errepidetik mota ezberdinetako ibilgailuek igaroko dira (kamioiak, autobusak, furgonetak, 4x4 ibilgailuak eta autoak) eta horien guztien artean 100km-ko erreko duten batezbesteko erregai kantitatea 10 litro baino gehiagokoa izango da.

Aipatu beharra dago, AHTk martxan jarri ahal izateko behar den energia zentral termikoetatik lortuko litzatekeela. Zentral termikoen artean badira gas naturala erregaitzat erabiltzen dutenak: Boroakoa Bizkaian, Lantarongoa Araban... Ikatza eta fuel-olioaz baliatzen denik ere bada, Pasaiaiko Iberdrolarena, 2020ra arte martxan jarraitzeko baimena duena. Eta azkenik, Santurtzikoa, fuel-olioa erabiltzen duena. Jakina da, gas naturala erregaitzat duten zentralek, ikatza edo/eta fuel-olioa dituztenek baino CO₂ gutxiago isurtzen dutela. Azken urteetan, ziklo konbinatuko zentralak eraiki dira, ikatzez edo fuel-olioaz baliatzen direnen orde. Baina horrek ez du esan nahi, ziklo konbinatuko zentral horiek, atmosferara isurtzeko onartua duten CO₂ kantitatearen muga gainditzen ez dutenik. Horra hor, Deia egunkariak 2006ko ekainaren 6an argitaraturiko artikulua batean aipaturikoa: Boroako zentral termikoak 2005erako baimendutako 748.412 tona isuri beharrean, 794.304 tona CO₂ aireratu zituela; alegia, 45.895 tona CO₂ gehiago.

Kontuan izan behar dugu, oraindik AHT ez dela abian jarri, eta jarriko balitz, zen-



"AHTrekin Donostiatik Bilbora orduerdi batean iritsiko bagara, urtean 25.805 tona CO₂ gutxiago aireratzen badira, eta hein batean, errepideetako arazoa konpontzen bada, zertarako egin nahi dira Supersur errepidea eta Bilbo-Behobia autobidearen (A-8) hirugarren bidea?"




tral termikoek CO₂ gehiago aireratuko luketela, klimaren aldaketa areagotuz.

Tren honek, ekosistema ugari betirako hondatuko litzuke, horien artean 31 km akuifero. AHTk behar dituen elektrizitate azpiegitura erraldoiek kanpo elektromagnetiko izugarria sortuko du eta osasunari kalte egingo dio. Poluzio akustikoa areagotuko du, osasunerako kaltegarria den 79 dB eta 94 dB arteko zarata eraginez 250 m-tan. Zementu kantitate handiak erabiliko dira AHTren tunelak, biaduktuak... egiteko, beraz, horrek harrobi berriak irekitzea ekarriko luke, oraindik ingurumena gehiago suntsituz. AHT egiteko aurrekontua 9.000 milioi euro ingurukoa da eta horrek gastu sozialaren murrizketa eragingo du...

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako gobernuak... zoritxarrez, hazkunde ekonomiko mito sakratutzat dute. Hori horrela izanik, ez dugu ahaztu behar, ekonomia biosfera mugatu baten azpi-sistema

bat dela eta biosferaren menpe dagoela. Ekonomiaren hazkuntzak biosferari presio gehiegi egiten dionean, ondasun naturalak (arrantza, erregai fosilak, ura...) sakrifikatzen hasi beharko dugu, eta gainera, gizakiak sorturiko ondasunak baino (errepideak, lantegiak, tresnak...) preziatuagoak dira. Orduan, "ekonomiaren kontrako hazkunde" batera iritsiko gara, non kalteak ugariagoak izango diren onurak baino.

Gizakiok egungo ekonomia-eredua aldatu eta bidegarria den bat ezarri behar dugu, biosferaren muga biofisikoak benetan errespetatzen dituen. Horrela, konponketa eta mantentze-lan zerbitzuek, adibidez, orain dutena baino pisu handiagoa izango dute. Zerbitzu horiek eskulan gehiago eskatzen dute eta neurri batean, deslokalizaziotik babestuta ere badaude.

Oraingo ekonomia-eredua aldatzeak, politikarien, enpresarien, kaleko jendearen... buruetan eta asmoetan erabateko aldaketa eragitea dakar. Askoren ikuspuntu politikotik, ekonomikotik... hori ezinezkoa litzateke. Orduan, daukagun aukera bakarra hazkuntza amaigabean oinarritzen den egungo ekonomia-ereduarekin jarraitzea litzateke, eta hori biofisikoki ezinezkoa da. Beraz, politika-mailako ezintasuna eta biofisika-mailako ezintasunaren artean, biofisika-mailako ezintasuna askoz ere zortzagoa denez, politika-mailako ezintasuna aldatzeari ekin beharko genioke. 

Tolosaldeko 18 udalerrik sustatu dute errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina

Egin “errenta aitortpena” eta e^z “deklarazioa”

6 Dagoeneko irekita dago errenta aitortpena egiteko epea. Badakizu euskaraz egin dezakezula? Horretarako bideak zeintzuk diren azalduz kanpaina berezi bat diseinatu dute UEMAko eskualdeko 14 udalerriek eta beste lau herrik. Helburua, errenta aitortpena euskaraz egiten duten herritarren kopurua igotzea da. Tolosaldean soilik %12ak aukeratzen du euskarara ogasunarekin zorrak kitatzeko. Galtzaundik eta Kontseiluak ere babestu dute kanpaina.

Tolosa, Villabona, Zizurkil, Ibarra, Aduna, Alegi, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Orendain eta Oresa dira euren herritarrek errenta aitortpena euskaraz egitera animatu nahi dituzten udalerrak. Elkarlanean “Egizu deklarazioa euskaraz” kanpaina jarri dute martxan. 9.000 eskuorri atera dituzte: herri gehienetan etxez-etxe banatuko dira, eta beste batzuetan herritarren eskura jarriko dituzte horretarako egoki diren guneetan. Kutxa eta Euskadiko Kutxak ere euskararen aldeko jarrera azaldu dute, eta bertan eskuragarri jarriko dituzte eskuorriok. Galtzaundiko bazkideek ere alearekin batera jasoko dute eskuorri hau etxean. Bertan, errenta aitortpena euskaraz egiteko bideak azaltzen dira, eta baita urteroko tramitazio hau euskaraz egiten duten herritarren portzentaia ere: Tolosaldean %12k egiten du errenta aitortpena euskaraz, portzentaia altuenak UEMA-


ko kide diren herrietan ematen direlarik: Altzon %26.96, Oresan %26.86, Amezketan %26.50, Orendainen %24.72, Elduainen %21.25, Adunan %21.21, Leaburu-Txaraman %20.70 eta Baliarrainen %20. Lizartzak ez du kanpaina honetan parte hartu, baina bertako herritarrengan oso zabaldua dago errenta aitortpena euskaraz egiteko ohitura, %27.05era iristen baita.


Portzentaia igotzea helburu


2009ko errenta aitortpenen portzentaia hauek igotzea da kanpainaren helbururik behinena. Bide batez, herritarrek erakunde publikoekiko harremanetan euskara erabiltzeko ohitzea nahi da, kanpainaren sustatzaileen iritziz, “paper kontuetan” gaztelania erabiltzeko tendentzia nabarmena baita.

“Euskaraz egin nahi duzula adierazi”

Eta nola egiten da errenta aitortpena euskaraz? Gal-


"Tolosaldean %12k egiten du errenta aitortzena euskaraz, portzentzia altuenak UEMAko kide diren herrietan ematen direlarik"


dera honi ere erantzuten dio kanpainak: Internetez egiteko, www.gipuzkoa.net web gunera jo behar da, eta bertan euskaraz egin nahi duzula adierazi behar duzu; era mekanizatua aukeratzen dutenek, lehenik hitzordua eskatu behar dute telefonoz edo internet erabiliz, eta eskaera egitean euskaraz egin nahi dela adierazi behar da; etxean aldundiaren autolizazio proposmena bidalduz gero, internetez edo telefonoz haur berrestean adierazi behar da; azkenik, aitortpena gestoria batekin egiten dutenen kasuan, gestoriakoari adierazi behar zaio tramitazioa euskaraz egiteko nahia.

Hilaren 16an egin zen kanpainaren aurkezpena Anoetako udaletxean. Bertan izan ziren ekimena sustatu duten udalerrietako ordezkariak, eta eurek eman zuten kanpainaren berri. Tartean zen baita ere Kontseiluko Tolosaldeko arduraduna, Juanlu Aranburu. Berak euskaraz bizitzeko konpromisoa arlo guztietara eraman behar dela adierazi zuen. Errenta aitortpena da arlo horietako bat. Bestalde, kanpaina hau eredugarritzat jo zuen, udalerrriak, erakundeak eta eskalgintzako eragileak elkarlanean aritu direlako. 

Oharra:

Galtzaundi Euskara Taldeak aste hauetan egingo du 2010ko bazkide kuota kobraketa.

Kultur ekitaldiak

Apirilak 25, Igandea

Autobusa

Nafarroaren eguna Baigorri
Irteera: 9:00etan Tolosako tren geltokitik
Itzulera: 18:00etan
Prezioa: 12€ (bazkideak 10€)
Izen ematea: Ibarako Zubiaurre eta Atarin, Tolosako Denak tabernan eta Galtzaundin

Maiatzak 9, Igandea

Autobusa

Herri Urrats 2010 Senperen
Irteera: 9:00etan Tolosako tren geltokian
Itzulera: 19:00etan
Prezioa: 12€ (bazkideak 10€)
Izen ematea: Galtzaundin

Apirilak 23, ostirala

Irakurri, gozatu eta oparitu

Apirilaren 23tik uztailearen 24ra
Tolosako Udal liburutegian

Apirilak 28, osteguna

Laburbira

Tolosako Kultur etxean, 20:00etan

Maiatzak 6, osteguna

Irakurle taldearen tertulia

20:00etan Tolosako Kultur Etxean



BENTA ALDEA

JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

T X O K O L A T E G I A



K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

shanti kirolak

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxes: 943 674 113



errotatxo okindegia

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

Tolosako Sanmaniego, Laskorain eta Hirukide ikastetxeetako zuzendaritza taldeen Hezkuntza Sailaren proposamenari buruzko iritzia bildu ditu Galtzaundik

Hezkuntza

Euskara gelak

8



3. a eredu hirueleduna ko baztertua?

Martxoan aurkeztu zuen Isabel Celaá hezkuntza sailburuak hezkuntza eredu hirueledunaren egitasmoa. Aurkezpen hartan, proposamenaren marko orokorra azaldu zuen, nahikoa, mugimendu euskaltzale zein abertzaleen kritikak pizteko. Eredu berriak zuzenki eragingo dituen ikastetxeak aldiz, ezer esan aurretik proposamenari buruzko zehaztapen gehiagoren zain daude. Dena den, galdekatutako Tolosako ikastetxeek programa eleanitzek utzitako emaitza onak baieztatu dituzte, eta euskara hizkuntza gutxitua izanik, gaztelera eta ingeleraren maila berean jartzea ez dela zuzena aitortzera ausartu dira.

9

Leire Zubeldia

“Euskara sustatu, elebitasuna bermatu eta ingelera aktibatu”. EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko buruak era honetan aurkeztu zuen Hezkuntza eredu hirueledunaren helburua. Euskal Herriak Bere Eskola edo Ikasle Abertzaleak bezalako mugimenduek, Ezker Abertzaleak, unibertsitateko irakasle talde zabal batek eta euskalgintzako hainbat eragilek besteak beste, publikoki adierazi dute, euren ustez, Celaáren propo-

samena euskararen aurkakoa dela.

Eredu berria hiru hizkuntzak irakasgai gisa emateaz gain beste arloen ikaskuntzan erabiltzean datza, hizkuntza bakoitzari gutxienez bost ordu eskainiko zaiolarik Lehen Hezkuntzan eta sei ordu Bigarren Hezkuntzan. Programa eleanitza osatzeko eskumena berriz ikastetxeek izango dute; ikasgai bakoitza zein hizkuntzatan emango den esaterako, zentru bakoitzaren erabakia izango da. Datorren kur-

tsoan froga gisa ezarriko dute eredu berria EAEko 40 eskola publiko zein kontzertatutan.

Badira 20 urte Tolosan soilik D eredua ematen dela. Eredu hirueledunarekin, euskara ez ezik, gaztelera eta ingelera ere eskolako hizkuntza izango dira. Ez dira etsai makalak euskararentzat: handiagoak eta sendoagoak dira. Hezkuntza eredu berriarekin euskara izango ote da gelako baztertua? Sanmaniego, Hirukide eta Laskorain ikastetxeetan galdetu dugu.

3



1. Zein iritzi duzue hezkuntza eredu hirueledunari buruz?

2. Ikasleen euskalduntzea bermatzen duela uste duzue?

3. Lehendik ere eman al duzue zenbait ikasgai ingelesez ikasteko aukera? Zer nolako emaitzak lortu dituzue?

4. Zein litzateke Hezkuntza Sailak proposatutako ereduaren alternatiba egokia?



Laskorain Ikastola

“Marko hirueledunak adierazten dituen bi helburu horiek aspaldi ditugu indarrean”

1. Orain arte eredu honi buruz jakin duguna sailburuak aurkeztutako markoa da, eta prentsan hainbatetan agertutako alde bateko eta besteko adierazpenak izan dira. Zehaztapenak ez ditugu oraindik eta gauzak nola joango diren ez dakigunez, iritzia ematea arin xamarra izan liteke.

Egia esan Euskal Herriko ikastolak urteak daramatzagu eredu eleanitza lantzen; gure ikasleek euskara, gaztelera eta inglesa lantzen dituzte lau urterekin hasita, eta Bigarren Hezkuntzan badute ingelesez ematen den beste gai bat. Beraz, marko hirueledunak adierazten dituen bi helburu horiek aspaldi ditugu indarrean: hizkuntzak txikitan ikasten hastea, eta hizkuntza horiek beste gai batzuk ikasteko erabiltzea.

2. Euskara hizkuntza minorizatua izanik, ez dago beste hizkuntzen baldintza berean. Urte hauetan guztietan indarrean egon den D ereduak horixe zuen helburu, eta marko berri honek gauzak alda ditzakeela uste dugu.

3. Urte batzuk badaramatzagu “Eleanitz” proiektuarekin eta gure balorazioa guztiz baikorra da. Ikasleak hain txikitik ingeleza ikasten hasteak onura handia ekarri dio hizkuntza horretan garatzen den kompetentzia garatzeari Lehen Hezkuntza osoan. Kontuan izan behar da, gainera, atzerriko hizkuntzaren lanketari eskaintzen zaion denbora areagotzearekin batera, baliabide metodologiko berritzaileak baliatzen direla. Bigarren hezkuntzan, berriz, ikasketa-hizkuntza bihurtzen da arlo bat landuz ingelesez.

Emaitza onak jasotzen ditugu, bai ingelesaren aldetik baita ingelesez lantzen dugun arloan ere. Horren adierazle dira Selektibitatean lortzen ditugun emaitzak eta Batxilergoko ikasketak “First Certificate” tituluarekin amaitzen duten ikasle kopurua.

4. Lehenik eta behin, alternatiba baten bila hasi aurretik, erabaki beharko genuke urte hauetan izan ditugun ereduak baliagarriak izan diren

ala ez, eta aldatzeko beharra ikusten den. Hala balitz, arrazoiak ondo aztertu eta eredu berriarekin zein helburu bilatzen den ondo erabaki, eta orduan ikusi beharko genuke zein den “alternatiba egokia”. Azterketa sakona eskatzen du eredu aldaketak, eta gakoa eredu bakoitzaren helburuan eta hori lortzeko ikastetxe bakoitzak bere Hizkuntz Proiektuan egiten duen Hizkuntz Plangintzan egongo litzateke. Hortaz, “egokitasuna” jartzen den hizkuntz helburuaren lorpena ahalbidetzeko gaitasunaren baitan neurtu beharko genuke, eta bistan da, horrek zerikusi zuzena duela, euskarazko kompetenziari bagagozkio batik bat, ikastetxea kokatzen deneko ingurune soziolinguistikorekin. Izan ere, hark ematen ez duena ikastetxeak bermatu beharko baitu, legeak dioen moduan, Derrigorrezkoa Bigarren Hezkuntzaren amaieran ikasleak Euskaraz eta Gaztelera B2 maila eskuratu behar badu. ©



Hirukide Ikastetxea

“Oso garrantzitsua izango da Hizkuntza Plangintza ikastetxearen neurria egitea”

1. Gure ikastetxean duela urte dexente hasi ginen hiru hizkuntzetan ikasten eta hasitako bide hori zabalduz joan gara azken urteotan. Bigarren Hezkuntzan eleaniztasun eskaintza ere egiten da. Izan ere, gaur egungo gizarterako trebatu behar ditugu ikasleak, eta gure ustez, hirueledun eskolak laguntzen du helburu hori lortzen.
2. Ikasleen euskalduntzea bermatzeko oso ongi antolatuta beharra dago lan hau. Horretarako, ikastetxeak Hizkuntza Plangintza egokia diseinatu eta martxan jarri beharko du. Aurren-aurrena ikastetxean hizkuntzaren inguruko diagnosi zehatz eta sakona egin behar da - ikasleen ama hizkuntza, familiar hizkuntza...-. Ondoren, diagnosi horretako datuak oinarri hartuta helburu batzuk markatu eta lehenetsi ondoren, helburu horiek lortzeko plangintza diseinatu: noiz hasi hizkuntza baikoitzarekin, zenbat denbora eskainiko zaion, metodologia... eta abar.
3. Bai. Urtero ingeleza indartzeko, bai LHn, bai BHN ordu eta gai gehiago ingelesez egiteko aukera ematen ari gara. Horrelako erabaki baten aurretik plangintza on bat egiten da, ondoren jarraipen zehatza eta gero ebaluaketa. Oso ongi zaindutako esperientziak direnez emaitza onak ari gara jasotzen.
4. Hezkuntza Sailak proposatuko duen ereduak ez du plazaratu oraindik, beraz, prentsaren bidez iritsi zaiguna besterik ez dugu ezagutzen. Lehen aipatu dugun bezala, eskola hirueledun arrakastatsua lortu ahal izateko Hizkuntza Plangintza sendo bat egin beharra dago. Tolosan, Bilbon, Basaurin, Azpeitian... Euskara ongi ikasteko erabaki desberdinak hartu eta aplikatu beharra dago. Beraz, oso garrantzitsua da ikastetxearen neurria egitea Hizkuntza Plangintza hori. Ikastetxeek ezaugarri desberdinak dituztenez, barentzako egokia izan daitekeen Hizkuntza Plana beste baterako ez da baliagarria izango.



Sanmaniego Ikastetxea

“Hiztun elebidunak sortzeko galtzak bete lan eta orain hirueledunak”

Sinesgarria al dira eredu berrearen helburuak? Gure ustez ez. Hirugarren hizkuntzari bi edo hiru ordu gehiago emateak ez du bermatzen hizkuntza horren jabetza.

Posible al da? Bai, baina orduak beste zerbaiti kenduz. Euskarari akaso? Beste eraso bat gehiago euskarari. Agian, neurri hauen helburua ez da hainbeste ingeles kulturaren alde egitea (ez bada propaganda efektu bat), euskal kulturaren kontra egitea baizik.

Beharrezkoa al da? Ez. Hizkuntza goiztiarraren proiektuak haurrak hizkuntza batean murgiltzea zuen xedea egoera komunikatiboetan lehen hasitapenak emanez. Guk uste dugu Lehen Hezkuntzan nahiko helburu badela hori. Hizkuntza formalera gerturatzea ez da Lehen Hezkuntzako eskola bateko eginbeharra.

D ereduak eskola baten xedea euskaldun osoak sortzea da, testuinguru ezberdinetan eta egoera formal zein infor-

maletan aritzeko ikasle kompetenteak hezteak. “Euskara lan tresna dugu baita harreman hizkuntza ere”, horrela islatuta dago eskolako hizkuntza normalkuntzarako plangintzan. Batez ere, horretan metatzen ditugu indarrak, are gehiago euskara hizkuntza minorizatu bat izanda eta inguruan dituen erasotzaile guztiak ikusita. Bestalde, euskara eta gaztelaniaren kurrikulum integratua sortzea dugu helburu ahozko-tasuna berariaz landuz.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA**

**Argi lanak
Iluminazioa
Antenak**

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

ibarra
Argi-Lanak

**Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak**

Apaiz-Erreka, 5
20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878
Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60

galtzaundi

Jarri publizitatea

**Galtzaundi
aldizkarian**

Nafarroa etorbidea, 6. 20400 Tolosa
Tel. 943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak
sustatu eta koordinatuko du bankua

Denboraren bankua martx

“Hartu denbora behar duzunean eta eman denbora ahal duzunean”. Lema horrekin martxan jarri dute Alkizan denboraren bankua.

Helburua, denbora mailegatuz herritarren bizitza karga arintzea da, eta bide batez, herritarren arteko harreman sarea sendotzea. Dagoeneko bankuaren erabiltzaileek denbora eskatu eta eskaini dezakete; kide ez direnek berriz, izena emateko aukera daukate Alkizako Kultur Etxera joanda edo 943.69.39.30 zenbakira deituta.

Leire Zubeldia

Egungo gizartean ohituta gaude zerbitzu jakin bat diruarekin ordaintzera. Halaber, denbora elementu urria da, ez daukagu nahi adina, eta gainera ez da berreskuratzen. Denbora denborarekin ordaindu daiteke soilik. Hain zuzen ere, denboraren bankuan “ordua” bera da truke eta balio neurria. Eskatu edo eskaintzen den zerbitzuak ez du axola, zerbitzu hori gauzatzeko behar den denbora da balio duena. Funtzionamendua erraza da: demagun lanetik etxerako bidean auto ilara batean harrapatuta geratu zarela eta ezingo duzula haurra eskolatik ateratzen denerako iritsi; denboraren bankura deitu eta koordinatzaileak zerbitzu hori emateko prest dagoen bankuko kide bati deituko dio; ondoren, zerbitzua eskaini duenak haurraren bila joaten pasatako denbora zehazten duen txekea emango dio bankuari, nahi duenean xahututako denbora hori berreskuratzeko; eskatzaileak berriz, denbora tarte hori ahal duenean ordaindu beharko dio bankuari.

Herri txikiarako ere baliogarria

Euskal Herriko hiri eta herri askotan jarri dituzte martxan denboraren bankuak. Donostia, Iruñea edota Bilboko esperientziak ezagun egin dira. Hainbat herrietan ere eman dute praktika, Ermuan esate-

rako. Baina hiri eta herri handietan ez ezik, denboraren bankua oso baliagarria da herri txikietarako ere. Horregatik, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariak, Itsaso Gonzalez-ek, Alkizan denboraren bankua sortzeko proposamena egin zuten: “iazko apirilean izan zen. Pertsona dextentek eman zuen izena. Gerora, Iruñea eta beste hainbat herrietako denbora bankuetara jo nuen haietakoren bat Alkizara etorri eta esperientziaren berri eman zezan. Ez zen posible izan, eta asmoa itzaltzen joan zen”, azaldu du. Aiztondo bailarako Larraul, Aduna eta Zizurkil herrietan ere ekimen bera jarri dute martxan eta Alkizan duela urte bete hasitako lanari eutsi diote berriro.

Itsasok bete-betean sinesten du denboraren bankuak eskaintzen dituen onuretan. Alkiza bezalako herri txikietan hiri batean bezain baliogarria izan daitekeela uste du. “Denok behar izaten dugu noizbait zerbait. Adibidez, gerta liteke oporretara goazela eta aste betez txakurrari jana emango dion norbait behar dugula. Alderantziz, denok daukagu zerbait eskaintzeko: esaterako ogia egiten dakizula, edo bizkotxo gozoak ateratzen zaizkizula, edota trebea zarela etxeko matxurak konpontzen... Kontua egiten dakigun horri balioa ematea da”. Bestalde, Alkiza muino batean inguruko herrietatik urrun

12

DENBORA TXEKEA
Informazioa: 943 69 39 30

Txeke honen bidez, honi ordaindu _____

Ordu kopurua _____

Ekintza _____

Data _____

sinadura _____

AIZTONDO
Zerbitzuen Mankomunitatea



xan da Alkizan

kokaturik egoteak eta herrian baliabide gutxi izateak, denboraren bankuari balio gehigarri bat ematen dio: "hemen, autorik ez duenak ez dauka nora joanik. Pertsona horientzat oso egokia da ekimen hau. Medikutara joan behar duela eta ez duela norekin joanik? Denboraren bankuan norbait prest izango du autoz osasun zentroraino eramateko". Bide batez, ingurugiroari ere ekarpena egingo litzaioke. "Askotan huskeriaren bat falta dugula eta, autoan sartu eta Villabonarraino joaten gara; kasualitatez, Villabonan bizilaguna topatzen duzu, bera ere erosketaren bat egitera jaitsi delako. Horrelakoak ekiditeko bidea ere eman dezake". Zalantzarik gabe, herritarren arteko harreman sareak sendotzeko helburua ere betetzen du bankuak. "Oso praktika lagungarria da, bereziki herrira etortzen diren familia berrien kasuan".

Familiako elkartasuna herrira zabalduz

Denboraren bankuan izena eman duten Ana eta Amaia herritarrak solasaldira batu dira. Ekimena "ideia ona eta egin beharrekoa" iruditzen zaie. "Garai batean familia eta lagun artean gauza asko elkarbanatzen ziren; elkartasun hori herrira zabaldu daiteke", azaldu du Anak. Herritarrak jakitun dira hasieran kostatu egingo

dela, proposamen berri oro erreparoz hartzen baitugu. "Bakoitzak bere kontaktuak ditu, eta zerbaiten laguntza behar izanez gero, etxekoengana edo ezagun batengana jotzeko joera daukagu. Alde horretatik zaila gertatuko da denboraren bankua erabiltzea", dio bietako batek, "bai, baina behin bankua martxan jarrita horretara irekita egon behar duzu. Gainera, hasiera izaten da kontua", gaineratu du besteak.

Konfidantza beharrezkoa da truke sistema honetan parte hartzeko. Alde horretatik, herri txikia izateak abantaila bat dakar: denek denek berri dutela. "Hala ere, askori zail egingo zaiela uste dut, batez ere eskatzea. Eman errazago egiten da". Horretan ere ikasiko dutela ohartarazi die Itsasok. "Inor ez dugu denbora eskatzera behartuko, ezta bankuak denbora asko zor badio ere". Hiru hilabetez behin egiten da balantzea eta bertan argitzen da zenbat denbora zor diozun bankuari, edo bankuak zenbat denbora zor dizun zuri. Mugak? "Mugak norberak jartzen ditu, eta bestela, horretarako dago bankuko bitartekaria".

Hasieran ematen duena baino askoz ere sinpleagoa dela azaldu du Aiztondoko teknikariak. Berak egingo ditu koordinatzaile lanak. "Demagun mendira joan nahi duzula, eta bakarrik ez joateko lagun

bat eskatzen duzu denboraren bankuan. Nik horretarako prest dagoen bankuko kideren bati deituko diot; baina agian une horretan ez dauka mendira joateko gogorik; orduan ezetz esaten dit eta ez da ezer gertatzen". Ezetz esatea librea da beraz. Gainera, ezezkoa errazago ematen zaio bitartekariari eskaera egin duen pertsonari baino. Horregatik, komenigarria da beti eskaerak zuzenean ez egitea eta horren ordez bankura deitzea.

Ana eta Amaiak batez ere gauza praktikoetarako ikusten dute erabilgarri bankua: "umea, aiton-amonak, etxeko baratza, edota txakurraren zaintzarako oso sistema praktikoa iruditzen zait. Edo curriculum vitae bat egiten ez dakizula, ba aholkularitza jasotzeko modu aparta ere izan daiteke", "batez ere, egunero sortzen diren gauza txiki horietarako erabiliko nuke nik". Trukaketak Alkizako herrira mugatuko diral ahal dela. Eskatzaileak behar duen zerbitzu hori Alkizan ezin bada topatu, orduan Aduna, Larraul edo Zizurkilgo denboraren bankueta-
ra joko luke Itsasok.

Ez dago aitzakiarik. Oraindik bankuko erabiltzaile egin ez direnak Kultur Etxera joan eta izena emateko animatu ditu Aiztondoko teknikariak. Eta Ana eta Amaia bezala, dagoneko erabiltzaile direnak has daitezela eskaerak egiten. ©

ZALBIDE

Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176



SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA



Juan Larrazpu

eraikuntzak, s.l.

- Baserrietako igeltseritza eta egurrezko estrukturretan adituak.
- Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teilatutak -
Sukaldeak - Baiñu gelak,
etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)



Tolosako Engels Ateneoan izango dira hitzaldiak apirilaren 26tik 29ra

Aste Iraultzailea marxismoa

Tolosako Engels Ateneoak lehenengo aste iraultzailea antolatu du, marxismoaren eta sozialismoaren ideiak bultzatzeko helburuarekin. Batez ere, langile mugimenduari eta gazteriarri zuzendutako egitaraua prestatu dute, marxismoaren arabera, gazteak eta langileak baitira iraultzaren abanguardian egon behar dutenak. Dena den, beste sektoreetako jendea ere gonbidatu nahi dute antolatzaileek, krisi ekonomikoaren garaiotan interesgarri suertatzen baita kapitalismoaren alternatibak arakatzea.

Leire Zubeldia

Apirilaren 26, 27, 28 eta 29an izango dira aste iraultzailaren baitan Engels Ateneoak antolatu dituen hitzaldiak. Maiatzaren 1eko langileen nazioarteko egunarekin lotu nahi izan dituzte jardunaldiok. "Euskal Herria Sozialista marxismoaren klasikorik garrantzitsuenak itzultzen ari da pixkanaka. Orain arte, "Manifestu komunista" eta Lennin-en "Estatua eta iraultza" liburuak genituen itzulita. Orain, beste bi liburu euskaratu ditugu: Rosa Luxemburgoren "Erreforma edo iraultza" eta Preobrazhenskiren "Anarkismoa eta Komunismoa". Liburu hauen aurkezpenak eta kapitalismoaren erasoei buruz zein langile mugimenduaren gainean hitz egiteko hitzaldiak dira antolatutakoak", azaldu du Ibon Artola Engels Ateneoko kideak. Eta hori guztia zertarako? "marxismoaren eta sozialismoaren ideiak bultzatzeko".

Duela bi urte inguru zabaldu zen Tolosako Errementari kalean Engels Ateneoa. Honakoa da aste beteko egitarau bat antolatzen duten lehenengo aldia, baina aurretik, jendeak izan du Ateneorako bidea ikasteko aukerarik: "Antolatu genuen lehenengo hitzaldia "Manifestu komunista"-ren aurkezpena izan zen; 30 pertsona inguru elkartu ginen orduan. Iaz berriz, Venezuelako iraultzaren denfentsan antolatu genuen hitzaldia. Orduko hartan Venezuelako fabrika okupatu bateko kidea gonbidatu genuen; 50 lagun etorri ziren Ateneora". Jendeak badu interesik beraz.

Langileei eta gazteei zuzenduta

Hitzaldi hauen bidez, langile mugimenduaren eta gazteriarren artean ideia marxista eta sozialistak sustatu nahi dituzte Ateneoko lagunek. Ideiak azaldu, zalantzak argitu eta iritziak trukatzeko abagunea eskaintzea baino haratago doa antolatzaileen asmoa. "Ideia teoriko hauek praktikara eraman nahi ditugu gazteriarren eta langile mugimenduaren bidez". Artolaren hitzetan, zoritxarreko krisi garaiak izaten dira horretarako egokienak; gauzak ondo ez doazela-eta, jendea kezkatzen hasten denean.

Langileak eta gazteak erakartzeko aldera, propaganda berezitu atera dute sektore hauek bakoitzarentzat. "Batetik, fabriketan izan gara bertako langileak aste iraultzailera gonbidatuz; bestetik, gazteei zuzendutako esku orriak atera ditugu eta Tolosako institutuetan izan gara hauek banatzen". Gazteenzatzat eta langileenzatzat ez ezik, emakumeentzatzat, langabetuenzatzat, jubilatuenzatzat... era guztietako jendearentzatzat interesgarri suertatuko dira hitzaldiok.

"Erreforma edo iraultza"

Apirilaren 26an izango da liburu aurkezpena Aitzol Arribilagak eskainita. Erreforma edo iraultza? galderari erantzun zion Rosa Luxemburgok liburu honetan. "Erreformismoaren bidea edo iraultzaren bidea aukeratzeko ez da saltxitxa hotza edo beroa aukeratzeko bazala; biek betetzen dute sabela. Liburuaren egilearen ustez, erreforma



aren ideiak zabaltzeko

hartuz gero ez zara iraultzara iritsiko, ezin da kapitalismoarekin amaitu; soilik iraultzaren bideak egiten du posible langile mugimendua antolatzea, eta honekin bakarrik da posible kapitalaren espropiazioa eta munduko zapalkuntza mota guztiekin amaitzea". Liburu honetan aztertzen den eztabaida duela ehun urte bezala ematen da gaur egun.

"Anarkismoa eta komunismoa"

Apirilaren 27an, Iker Otermin anoetarrak aurkeztuko du berak euskaratutako Preobrazhenski-ren liburua. Puri-purian dagoen beste gai bat jorratuko dute hemen. Izan ere, anarkismoak indarra hartu du munduko txoko askotan, batik bat gazteen artean. Argitalpen honen bidez, anarkismoaren eta komunismoaren arteko ezberdintasunak azalduko dituzte, Artolaren ustez, oraindik orain ez baitira muga horiek zehatz-mehatz ezagutzen: "esaterako, Errusiako iraultzan, anarkistek planteatu

zuten fabrikek bertan lan egiten zuten langileenak izan behar zutela; komunismoak aldiz, fabrika guztiak langile guztienak izan behar zutela eta ekonomia planifikatu bat egin behar zela defendatu zuen". Ezberdintasun anitz horietaz jardungo dute.

"Kapitalisten eraso eta langile mugimendua"

Apirilaren 28ko hitzaldia Ibon Artolak berak emango du eta bereziki langile mugimenduari zuzenduta egongo da. "Azken urte hauetan kapitalismoak egin dituen erasoei buruz hitz egingo dut: adibidez, duela gutxi proposatutako lan eta pentsio erreforma jorratuko dugu". Ez da hitzaldi pesimista bat izango, "langile klasearengan konfidantza izatea" eskatuko dute, eta "mobilizatzeko eta antolatzeko sindikatueta zuzendaritzek metodo iraultzaile batzuk defendatu behar dituztela" aldarrikatuko. Kapitalismoaren erasoan aurrean,

greba orokor bateratu bat antolatzearen aldeko jarreraren defentsa egingo dutela iragarri du Artolak.

Nikaraguako Iraultza Sandinista


Historian eman diren iraultzetatik ikastea ere garrantzitsua da. Horretan saiatuko dira apirilaren 29ko hitzaldian. Cesar, "Manos fuera Venezuela" taldeko kide mexikarra izango da hizlaria. Iraultza Sandinistaren ikasgai garrantzitsuetako bat, gazteek, langileek eta nekazariak Somozren diktadorearekin amaitzea nola lortu zuten izan zen. Baina lorpenetatik bezain beste ikas daiteke akatsetatik, eta Nikaraguako iraultzaren kasuan okerra erreformaren bidea aukeratu izana izan zen.

Hitzaldi guztiak arratsaldeko 19:30ean izango dira Errementari kaleko 8. Zenbakian dagoen Engels Ateneoan. Bertan eskuratu ahal izango dira aurkeztuko diren bi liburuak. ☺


galtzaundi
Jarri publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian
Nafarroa etorbidea, 6, 20400 Tolosa
Tel. 943 655 004
publizitatea@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com

Zumardi
SEGUROS
BILBAO

Aholkularitza
integrala
Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877


kutxa

Galtzaundi Euskara Taldeak koordinatzaile posturako langilea behar du

Kontuan izango da :

Komunikabideetan eta kudeaketan esperientzia izatea.

Euskalgintzaren ezagutza izatea.

Kurrikuluma galtzaundi@galtzaundi.com
helbidera bidali behar da. Epea, maiatzak 14


galtzaundi
euskara taldea


Martin
Eceizabarrena
Instalazio
erreforma
Konponketak
Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

Joxe Mari Garmendia

misiolari eta bertsolari
eskuzabala

Felix Aiestaran

Joxe Mari Garmendia Ibarako Zalduanea etxean jaio zen 1944an. Hamabi urterekin Saturrarango seminaria joan zen. Gerora, Venezuelan bi urtez misio lanetan aritu ondoren, 1972an apaiztu zen. Gaztelun eman zituen bere lehen apaiz urteak. Atzera, 1973an Venezuelara itzuli zen beste zortzi urterako. Handik Oartzunera etorri eta hamahiru urtez aritu zen bertan. Juan Mari Lekuonaren inguruan, giro egokia izan zuen bertsoak meza barruan erabili ahal izateko. Emeterio Sorazuk Joxe Mariren bertso lanak "Fedea eta Bizitza Bertsoan 1971-2009" liburuan argitaratu berri ditu. Bertan eliz eta giza ospakizunetan erabilitako bi milatik gorako bertso sorta biltzen da. Misio lanetan ari da 1995tik Ekuadorko Santa Rosan. Bere misio gintzarako konpromisoa erabatekoa da. Adore eta alaitasunez eusten dio eguneroko lanari, Ekuadorko herritar xumeek bere kasa aurrera egiteko hezkuntza, lanbide eta beste hainbat egitasmo sozial gauzatuaz. Ibarako Misio taldearen elkarlana zuzena izaten du horretarako.



Nola hartu zenuen apaiza izateko erabakia?

Ikasturte amaieran fraideak etortzen ziren eskolara bere diapositibekin umeak seminariora animatzeko. Halaxe, hamabi urterekin joan nintzen seminariora, bertan beste hamabi urtez egoteko. Giro horretan gustura egon nintzen eta momentua iritsi zenean, apaizteko erabakia hartu nuen. Lagun askok seminarioa utzi eta beste bide bat hartu zuten.

Apaiztu aurretik bi urtez Venezuelan egon zinen...

Misiotako joera genuen. Garai hartan misiotara joatea indioak salbatzera joatea zela uste genuen. Hegazkinetik jaitsi eta han ez zegoen oihanean galdutako indiarririk. Oso esperientzia aberatsa izan zen. Bazen euskal talde laikoa eta haiekin erakuntzan aritu ginen: eskolak, etxeak... altxaz. Katekesian eta gazte taldeekin oso gustura ibili nintzen, bertako jendea oso irekia da-eta. Gu beraien egoeran egongo bagina, hemen dena lehertu egingo zen, baina beraiek ez, venezuelarrek izugarritzko patxada dute. Kolonizazio garaitik beti menpe, morroi bizituak izanik, historiak pisu handia du hego amerikarren gaurko izateko moduan. Espainiarrek jendea makurrazteko matxetea erabili zuten.

Zer moduz aritu zinen Gaztelun apaiza lanetan?

Gazteluko apaiza-etxea itxita zegoen. Bertako giltza Tolosako Santa Mariatik hartu eta 1972an neuk ireki nuen. Gaztelun eskola ttikia zegoen eta ni Ibarrik astean bitan igotzen nintzen. Umeekin aritu, dotrina pixka bat eman... larunbatetan gaueko meza eman, Gazteluko apaiz

-etxean lo egin eta igandeko meza eman ondoren atzera berriz jaisten nintzen. Gaztelun oso ondo pasa nuen. Orain dela gutxi, ezagutu ez nuen bertako gazte batek agurtu ninduen, gaur hartako festa, aizkora apustu eta asto lasterketak gogoratu.

Venezuelara beste zortzi urterako itzultzean, zein izan zen zure lana?

Herrietan erretore lana egin nintuen: meza, bataioak, hiletak... Horren ondoren misio taldeak sortu ziren, batez ere hezkuntza arloan. Laiko asko Arrasate ingurukoak ziren eta beraiek hango eskola mota zuten buruan. Lanbide hezkuntza aldera jotzen zuten. Lanbide hezkuntza eskolak jarraipena izan zezan jesuiten esku utzi genuen. Caracas inguruan geunden eta industriarako prestatzen genituen gazteak. Bostehun inguru aritzen ziren ikasten. Gaur egun ere abian dago hezkuntza egitasmoa. Kooperatibak sortzeko asmoa ere bazegoen...

Zer dela eta jarri zizuten Txamo ezizena?

Bertan mutikoei txamo deitzen diete eta ni beti hitz hori ahotan nuela aritzen nintzenez, Ekuadorrera joan nintzenean, haurrei txamo deitzen nienean ez zuten ezagutzen hitz hori eta ni izen horrekin geratu nintzen.

Zer nolako bizipenak izan zenuen Oiartzunen 1982an bertara joan zinenean?

Bertako apaiz lanetan aritu nintzen hamahiru urtez. Urte oso onak izan ziren. Nik etxean ezin dut bakarrik bazkaldu edo afaldu. Etxean baino gehiago kalean bizi nintzen Oiartzunen.



"Elkar menperatzeko tresna da kanpo zorra."

Oiartzuneko auzo ugari eta oso sakabanatuak ditu. Oiartzun ez da herria, zortzi herrixkez osatutako bailara baizik. Jendeak nire beharra bazuen ez zen joaten bila nire etxera, orduaren arabera Oiartzungo auzo jakin batera jotzen zuten. Baserrietan, garo biltzen-eta gustura aritzen nintzen. Kristau elkartekoez ez dute bizi behar elkarteari soilik begira, herri osoari begira baizik. Kristau elkarrekin herriari zerbitzatu behar dio. Fedeak gizarte berrirako indarra izan behar du. Fedeak gerorako izan behar al du? Sinesteak gaur bertan, erantzuten saiatu behar du.

Bertsozetasuna Oiartzunen txertatu zitzaizun, ezta?

Bertsoak betidanik gustatu izan zaizkit. Idatziz zer edo zer egin dut, baina bat-batekoan ez naiz aritu. Bertsoak erabiltzen Juanmari Lekuonari ikasi nion Oiartzunen. Bertsoa meza ba-

rruan edo parte hartzen zuen herriko ekitaldiren batean erabiltzen zuen. Oiartzun herri bertsolaria da. Sermoi luze batekin baino bertso pare batekin, jendearengana iristea errazagoa zela zioen. Hiletetan, ezkontzetan... bertsoak botatzen hasi nintzen. Jendea ohitu egiten da eta bota gabe utziz gero eskatu egiten du. Ibarrik ere, meza batean edo, botatzen ditut bertsoak. Bertsoa, euskaldunok dugun komunikazio tresna ederra da.

Jarraitzen al duzu gaurko bertsolaritza?

Bai gustukoa dut. BEC-en horrenbeste jende biltzea, tartean gazte asko direla, zerbait handia da. Herri mailan zerbait sakratua da bertan bildutako milaka lagun bertsolari nagusien aurreko isiltasuna.

Zertan ari zara Ekuadorren?

Ekuadorko hego-kostaldean,

Peruko muga inguruan dagoen El Oro izeneko eskualdeko elizbarrutian nago. Euskal Misio taldeak 62 urte bete ditu. Eliza egin baino lehenago oinarrizko kristau elkarteak sortu behar dira. Auzo ttikitari sakabanatutako berrogeita hamaikaren bat elkarte xume ditugu. Elkartearen bilerak otoitz, kanta, Biblia irakurketa... izaten dira. Elkarrekin hausnartu, ondoren inguruko gaixoak, edadetuak, auzoan dauden arazoak... aztertu eta erantzuten saiatzen dira. Ospatzen dugun sinismena aurrean ditugun beharrei erantzuteko argi eta indarra dugu. Elkartean

Pas-

toral soziala egiten dugu, osasun arloan, hezkuntzan... eta hauek boluntarioez osaturiko komisiotan antolatuta daude. Azken bi urteotan legezko elkarte izatera eman diegu. Udalaren aurrean edozein eskaera egiteko babesa ematen du. Alkatearen aurrean apaizak badu halako itzala, baina elkartean beraiek dira gauzak egin behar dituztenak. Hemengo elizbarrutiak beraiekin duen komenioa aurtengo abenduaren 31ean amaitzen da. Beraiek hartu behar dute beregain hango martxa. Badira beste egitasmoak: nekazal eskola bihurtu nahi dugun abeletxea badugu, eta lanbidea ikasteko eskola teknikoa eraikitzeko lurrak ere baditugu. Gu pipiak jota gaude eta ez da berririk joaten hemendik.

Elkarlan estua duzue Ibarroko Misio Taldearekin, ezta?

India eta Ekuadorko proiektuak laguntzen ditu. Laguntza handia ematen digu Ibarroko Misio Taldeak. Laguntzeko gazteak ere joan dira: Izaskun Azurmendi lau urtez egon zen bertan.

Amerikako joera politikoa ezkerreko bira egin du...

Correa agintera jendea nahi izan zuelako iritsi zen. Boterean txandaka bi alderdi zahar aritu izan dira, baina jendea aspertuta zegoen eta aldaketa nahi zuen. Correak atzean ez du alderdirik, baina oso karismatikoa da eta jendeak asko maite du. Gobernu taldea osatzeko lehengo partiduetako jendea hartu behar izaten du, eta ez du beti asmatzen. Ari da gauzak egiten. Herriaren partaidetza bultzatuz, hiritarren iraultza abian dela esaten du.

Euskal Elizak Munillaren izendapenez izango duen bilakaez, zer diozu?

Kanpotik bizi dut, baina ez da izutzekoa. Setienekin Muni-llak zer egin zuen badakigu... Baina apaizak lasai daude. Gu apaizak gara, bera gotzaina da eta Gipuzkoako eliza aurrera eramateko Muni-llak Gipuzkoako gotzaina izaten ikasiko du. Palentzia edo Gipuzkoako gotzaina izatea ez baita gauza bera. Apaizok ere Muni-lla gotzain dela, apaiza izaten ikasi beharko dugu. Denok herri bat dugu aurrean eta bertako parte gara.

Lehen mundua eta hirugarrenaren arteko elkartasuna, nola bideratu beharko litzateke?

Hona ekuadortar ugari etorri da, han bizimodurik ez zuelako. Hemen paperik gabe, beldurrez, ezkutuan dabilta. Nazioarteak Ekuadorko gobernuari, han bertan lana sortzen lagundu beharko lioke. Bertatik joan nahi duena libre izan dadila, baina ez dadila gerta joan beharrean. Nazioarteako kanpo zorra, zergatik ez da erabiltzen horretarako? Elkar menperatzeko tresna da kanpo zorra. Nazio batzuek zerbait egin dute... Elkartasuna bideratzeko hirugarren-laugarren munduko sufrimendua eta ezina sentitu behar dira. Eta borrokatu.

Ekuadortik nola ikusten duzu Ekuador?

Hemengo berri oso gutxi izaten dugu. ETaren ekintzaren bat, gobernu Espainiarrak egin duena, igandero hemengo ligako futbol partidua... Gazteek internetez hemengo berriak jaisten dituzte. Euskal Herria batzuetan penaz



“Ospatzen dugun sinismena, aurrean ditugun beharrei erantzuteko argi eta indarra dugu”



ikusten dut. Politika mailan ezker abertzalea legez kanpo uzteak, ETaren ekintzek... samina eragiten didate. Badi-rudi ezker abertzalean politika ekintzari indar handiagoa eman nahi zaiola. Badut esperantza. Ikasiko dugu lehen-tasunak adosten eta indarrak batzen.

Ttikitako Ibarra hartatik zein aldaketa izan dira?

Aldaketa ikaragarria. Venezuelara joan eta hirurogeigarren urtetik lauzpabost urtera etorri nintzenean, 1500 biztanle izatetik ia 5.000 izatera pasa zen. Autobiako zubia ere ez nuen ezagutzen... Bestetik Francoren aurrean denok bat ginen eta bera hil zenean lehen batera ibiltzen ziren koadrilak zatitu egin ziren, ardo bat ere elkarrekin hartu edo agurtu ezinaz. Orain egoera asko saneatu da, alde horretatik. Ibarra alkatea HBkoa izatetik legez kanpo uzteak, egoerari su ematen dio. Gazteek politikaz pasa egiten dute. Lehen herri mailan talde gehiago zeuden herri mailako ekitaldiak prestatzeko. Gaur ere gazte asko da zentzudun, euskaldun bizi-maitale eta idealista. Agian, helduok ez dugu jakin... ez dugu asmatu... eurak egin beharko dute guk asmatu ez duguna. Bizi eta osatu dezatela Euskal herri eder bat bak-kean denontzat!



Txarli Gesteira
Blogaria

Euskal Herriko historian zehar auzolanak garrantzi handia izan du. Askotan herri ttiki eta baserri inguruetan ezinbestekoa izan da hainbat lan aurrera ateratzeko, horretarako familia, lagunak, edo auzokoen inplikazioa, elkartasuna, kooperazioa beharrezkoa delarik. Gaur egun, aro digital delako honetan ere, auzolanak bere garrantzia du. Are gehiago mundu globalizatuan gu bezelako herri ttiki batentzat. Guk ez badugu egiten inork egingo ez duelako.

Auzolan digitalak, euskaraz

Modu kolaboratiboan, hau da auzolanean egindako proiektu asko daude euskaraz, ezagunena akaso Wikipediarena (<http://eu.wikipedia.org>) izango da, euskaraz dagoen entziklopedia digitala, erabiltzaileek osatzen dutena. Gaur egun 55.000 artikulua baino gehiago ditu, erabiltzaileek jakinduria sarean partekatuz osatua.

Wikipediaren antza duen beste ekimen bat ere bada, OpenStreetMap (<http://www.openstreetmap.org/>) bezela ezagutzen den proiektua. Munduko mapa librea (patente edota copyright-ik gabekoa) osatu nahi duen nazio arteko ekimena da hau. Kasu honetan, Tagzania (<http://www.tagzania.com>) enpresa eibartarrak, OpenStreetMap ezagutzera

eman, eta aldi berean euskarak bertan zuen presentzia handitzeko asmoarekin, Euskal mapa proiektua jarri zuen martxan. Horretarako Euskal Herri guztian zehar aritu dira hitzaldi teoriko-praktikoak ematen. Aldi berean blog bat ere sortu dute, <http://www.euskalmapa.com/bloga>, bertan nola "mapeatu" erakutsi eta zalantzak argitzen ere saiatzen dira. Honela, erabiltzailea, bere inguruko tokiak mapeatzen hasteko moduan izango da. Zeinek ezagutzen ditu bere herria, mendiak, basoak, txokoak, bertakoek baino hobeto? Bakoitzak beharrezkoa iruditzen zaion informazioa gehituko du (iturriak, kutxazainak, jolastokiak, kaleak, tabernak, garai bateko izenak...).

Beste proiektu interesgarri bat ere badago martxan, Azpituduluak (<http://azpituduluak.com>). Bertan, jatorrizko bertsioren eta kultura-truke librearen alde lan egiten dute. Filmen bertsiotik azpidatzi edo azpituduluak jartzeko ohitura sustatzea du helburu proiektu honek. Pixkanaka ari dira materiala osatzen, dagoeneko, "Up" 2010eko Oscarretan saritutako animazioko filma; "Ten Canoes", hizkuntza australiar aborigen batean dialogoak dituen; eszena bakar batean grabatua dagoen Alfred Hitchcock-en "The Rope" (1948) filma; edota Ghostbusters (1984) mitikoa aurki ditzakegu bertan. Orain arte egindakoak <http://azpituduluak.com/osoak> helbidean daude.

Hala ere, lanerako gogorik ez dugunean, denbora pasa ibiltzeko aukera polita eskaintzen digu sareak. Hitzapasa: telebistako "Pasapalabra" euskaraz online dago, <http://www.euskaljakinza.com/hitzapasa/> probatu, esango didazue.

Ahotsak, altxorraren kutxa

“Orain edo inoiz ez”. Hortaz jabetuta hasi zen www.ahotsak.com web gunea Euskal Herrian zehar altxorraren bila. Egitasmoak herri hizkerak eta ahozko ondarea biltzea du helburu. 80 urtetik gorako pertsonak elkarrizketatuz, garai bateko ohiturei eta bizimoduari buruzko informazioa jasotzen dute batetik; bestetik, euskalkien eta azpi-euskalkien arteko mugak, bakoitzaren ezaugarriak, hiztegia eta ahozko diskurtsoaren formak ari dira biltzen besteak beste. Egitasmoa Tolosaldera iritsi da. Bi urteren buruan 300 elkarrizketa egin nahi dituzte eskualdeko 28 herrietan. Horretan dihardu Miren Artetxe filologoak.

Leire Zubeldia

2010ean Tolosaldean ibiliko zara bertako herri hizkera katalogatzeko lanean. Orain arte zer egin duzue?

Hogei herrietan izan gara testigantzak hartzen. Herri horiek ukitu egin ditugu soilik. Gure asmoa urte betean 150 elkarrizketa egitea da, eta bi urteren buruan kopuru hori 300era bikoiztea. Biztanleria kontutan hartuko bagenu, To-

losan bildu beharko genituzke testigantza gehien, baina herri txikietakoa hizkera jasotzeari emango diogu lehentasuna; herri bakoitzean dozena bat elkarrizketa egin nahi ditugu. Amezketan, Abaltzisketan, Ikaztegiatan, Anoetan, Iruran, Berrobin, Alkizan... egin ditugu batzuk.

Bizkaia aldean lehenago hasi ziren proiektu honekin. Gipuzkoako eta Tolosaldeko euskarak betidanik prestigio gehiago izan duenez, errebindikazio modura-edo hasi ziren han. Gertatu dena da, adibidez Tolosaldean inoiz ez dela herri hizkera jasotzeko egitasmorik egon. Horregatik lehentasuna eman diogu eskualdeari.

Auzoetan ere ibiliko zarete?

Bai. Ofizialki, auzoak dagoen herriari atxikitzen dizkiogu. Elkarrizketatuaren jatorria izendatzerakoan ordea, “halako herriko halako auzokoa” dela zehazten dugu. Auzo batek bere izaera eta hizkera propioa du, eta horrela islatzen dugu guk.

Zailena hizlariak aurkitu eta beraiekin harremanetan jartzea izango da... Nola moldatzen zarete?

Bide bat udaletxean erroldatuen zerrenda eskatzea da. Baina pribatutasunaren legea dela eta, udaletxe askok uko egiten

diote agiria emateari. Herri txikietan, udaletxeako agintari edo langileek egoki zaizkigun herritarrak ezagutzen dituzte, eta beraiek laguntzen digute hura bilatzen. Ez daukagu sistema zehatzik. Ahal den moduan moldatzen gara. Hori bai: saiatzen gara harremana ezagun baten bitartez egiten, ezezagun batek arratsaldeko bostetan atea jotzea ez baita ohikoena.

Zein irizpiderekin aukeratu dituzue hizlariak?

80 urtetik gorako pertsonak aurkitzen saiatzen gara. Dena den, irizpide hau erabat arbitrarioa da. Duela hamar urte proiektu honekin hasi zirenean, 80 urte zituzten pertsonak Gerra Zibila helduak zirela bizitu zuten; egun, 80 urte dituenak haurra zela bizitu zuen garai hura. Ikuspegia ezberdina da. 80 urtetik beherakoak ere elkarrizketatzen ditugu, egokiak badira behintzat. “Egokiak” esan nahi du orduko bizimodua presente izatea eta kontalari ona izatea. Ezaugarri hauek adin horretako jende gehientsuenak izaten ditu.

Nola hartzen dute pertsona bat beraiei entzuteko prest egotea?

Bi sentimendu ezberdin ikusi ditut nik, eta askotan pertsona berean. Lehenengo erreak-

zioa "nik ez dakit ezer ez, ni baserrian egon nintzen" izaten da. Gero, kamara, tripodeta eta trasteak ateratzen berriz estu sentitu daitezke. Beste alde batetik entzunak izatea eskertzen dute. Iruditzen zaie gazteoi ongi etorriko zaigula garai batean patata edo garai nola egiten zen jakitea. Esaten digute saiatzen direla beraien bilobei gauza horiek kontatzen, baina hauek ez dietela entzuten.

Zertaz hitz egiten duzue?

Tolosaldeko elkarrizketatu gehienak herri txikiak eta baserriak dira. Horrek ez du esan nahi denek gauza berdinaz hitz egiten dutenik, edo soilik baserriko kontuez aritzen garenik. Konturatu naiz, funtsean, guk hitz egiten dugun gauza berberetaz hitz egiten dutela: maitasun kontuez, bizitza kalitatearen hobekuntzaz, herriko liskarrez, orduko politikaz... Guk ez dugu Gerra Zibilari buruz edo elikadurari buruz galdetzen. Edozer gauzaz hasten dira hizketan, eta guk eramaten duten hariari tiratzen diogu.

Esperientzia pertsonal bezala nola definituko zenuke?

Esperientzia izugarria da. Azaroan hasi nintzen elkarrizketak egiten. Askotan esaten didate "guk zer esango dizuegu ba, zuek duzue eskola", eta nik erantzuten diet unibertsitatean baino gehiago ikasten dudala beraiekin. Oso interesgarria da ikustea bizimodu batetik bestera nola pasa garen eta beraiek nola bizi izan duten trantsizio

hori. Azkenean, garai ezberdinetara eta hauek ekarri dituzten aldaketetara egokitu behar izan dute. Beraien ikuspegia ez dut nire adinekoengandik jaso.

Elkarrizketen bidez, herri hizkera jasotzeaz gain garai bateko ohituren berri ere jasotzen duzue...

Helburua da herri hizkerak eta ahozko ondarea jasotzea. Ahozko ondarea deitzen diogu etnografia hitz potoloegia delako. Galdetegi bat daukagu, ahalik eta konpletoena, bizitzaren ikuspegi gehienak hartzen dituena. Saiatzen gara elkarrizketatu bakoitzari ahalik eta informazio zehatzena ateratzen. Pilotari ohi bati elkarrizketa egiten badiogu, orduko piloten materialaz, hiztegiak eta abarrez galdetzen diogu.


Tolosaldeko herri batetik bestera hizkeran dauden aldaerak somatu dituzue?

Bai. Gainera, elkarrizketa guztietan bost minutu hartzen ditugu Tolosaldeko hizkera ezberdinez hitz egiteko. Galdetzen diegu eta Tolosaldeko euskara iruditzen ote zaien garbiena edo politena (askok baietz esaten dute); ea non hasten den hizkera aldatzen. Irurako bati galdetzen badiogu, esango digu, Anoeta aldera ez dela aldatzen baina Tolosa aldera joanda baietz; Alegiako batek berriz, Ikaztegiatara jota ez dela aldatzen esaten du, baina Amezketarekin alderatuz aldatzen dela ziurtatuko luke. Ez dira filologikoki fundatutako iritziak, baina afektibotasuna

eta soziologia bertan daude eta horregatik saiatzen gara era honetako informazioa ateratzen.

Bestalde, ikerketa linguistikoak ere egiten ditugu: "kin" edo "gaz" erabiltzen ote duten galdetu izan dugu adibidez, Bergara aldean. Gure web orrian, euskalkei eta azpi-euskalkie buruzko mapa bat aterako dugu laster. Bertan ezarriko ditugu hizkera bakoitzaren mugak non dauden, eta hauei buruzko ezaugarriak zeintzuk diren. Horretarako informazioa elkarrizketetatik aterako dugu.

Zein alde dago gazteok kalean erabiltzen dugun hizkeraren eta pertsona helduek erabiltzen dutenaren artean?

Baina aldaketarik garrantzitsuna diskurtsoa antolatzeke eran dago. Jende adinduek ahozkotasanetik jaso izan du informazio gehiena eta ahoz transmititu izan du gero. Horregatik, kontatzeko daukaten gaitasuna, teknika eta baliabideak gure aldean oso aberatsak dira. Izugarriko ahalmena daukate pasadizioaren haria galdu gabe, denboran atzera joan, pasarte txiki bat kontatu, zeharkako diskurtso bat tartekatu, eta berriro pasadizo nagusiaren tramari jarraitzeko. Eskema mental konplexuak egiten dituzte, guk egin ezin ditugunak. Ez daukagu hitz egiteko halako sormenik. Informatiboetako hizkuntza erabiltzen dugu, batez ere, ondokoak kontatu diguna hirugarren bati ahalik eta zehatzenen transmititzeko beharrik ez dugulako eduki. 

ALDATZ Kristaldegia
Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiluak
Beirate artistikoak
Dutxa-ixturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel
CORREDURIA DE SEGUROS
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759

Bizi-aseguruak
Kotxe-aseguruak
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-aseguruak
Denda-aseguruak
Erreireoak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zertuzak
Ordinagailuak eta konputatzaileak
Egurren eta periferikarriak
Makinariak

Oria katea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es



Koldo Alonso

“Lehiatzen nabilenetik **k**aleko mo

Aurten denboraldi laburra egingo du Koldo Alonso motor gidariak. Uztailean aita izango da eta soilik ekainean amaituko den Michellin Power Cup txapelketan hartuko du parte. Denboraldiko helburu guztiak txapelketa honetara murriztu ditu beraz: iazkoa hobetu eta podium-a zapaltzea du helmuga. Ez doa bide txarretik, txapelketako lehen lasterketan bigarren postua erdietsi baitzuen.

Leire Zubeldia

Koldo Alonsok iaz jokatu zuen estreineko aldiz Michellin Power Cup txapelketa. Lau hilabete irauten ditu, hilabete bakoitzean lasterketa bat jokatzen delarik. Bere lehenengo parte hartzean emaitza bikaina lortu zuen: lasterketa batean 2. postuan sailkatu zen eta txapelketako sailkapen nagusia 4. lekuan amaitu zuen. Koldok ez zuen horrelakorik espero, baina lor dezakeenaz jabetuta, aurten seriotasunez ekin dio txapelketari: “helburua iazkoa hobetu eta azken sailkapenean podiuma zapaltzea da”, azaldu du. Txapelketako lehen lasterketa apirilaren 4an jokatu zen Batzelonako Castelloli zirkuituan. 2. lekuan helmugaratu zen; helburua eskura dauka beraz. Baina hankak lurreen ditu Koldok, eta soilik hurrengo lasterketa du buruan: “apirilaren 25ean jokatuko da Albaceten. Han gauzak ez dira hain errazak izango. Zirkuitu zailagoa da”.

Koldo afizionatu mailan lehiatzen da. “Txapelketa hau pilotu hasi berriei bultzadaxo bat emateko prestatuta dago. Izen ematea librea da, edonork hartu dezake parte bertan.

Gaztetxo hasi berri ugari egoten da beraz, baina bestalde, txapelketa hau oso egokia da udara ostean jokatzen diren lasterketarako prestatzeko. Alde horretatik, pilotu on askok ematen du izena, eta entrenamendu gisa erabiltzen dute”. Lehen hamar postuetan borroka handia egoten dela ziurtatu du Alonsok. Honenbestez borrokatu egin beharko du bere helburua lortzeko. “Lehenengo hiru postuetan sailkatzen direnentzako sari bikainak egoten dira: motorraren munduan jarraitzeko laguntza garrantzitsuak ematen dituzte. Niri primeran etorriko litzaidake datorren urteko denboraldiari begira”. Gogotik saiaturiko dela zalantzarik ez dago.

Lasterketa bezperak baliatzen ditu pilotuak entrenamenduetarako. Entrenamendu fisikoak berriz, astean zehar burutzen ditu. “Motorraren gainean joaten garen arren, lasterketa bat amaitzeko fisikoki ondo prestatuta egon behar duzu”, argitu du. Dena den, punta-puntan ibiltzeko gakoa entrenamendua eta motorra egoera onean edukitzea da. “Gure mailan hori da lehiaki-

22



Koldo Alonso aurten Castelloiko zirkuituan jokatutako lasterketaren podiumean.

torrak ez nau erakartzen"

deengandik bereizi zaitzakeen ezaugarri nagusia: entrenatzeko, motorra mantentzeko edo kubiarta onak erosteko diru baliabideak edukitzea".

Kalean edo zirkuituan, ezberdin

Aurtengoa Koldoren 5. denboraldia da. "2006an hasi nintzen Yamaha Cup txapelketan parte hartuz. Hurrengo bi denboraldiak Ducati etxeko taldearekin egin nituen. Azken honekin erresistentzia lasterketetan ateratzeko aukera izan nuen. Montmeloko 24 orduetan parte hartu genuen birritan, Estatu mailako lasterketarik garrantzitsuenetarikoa da hau. Bi urteren buruan Yamahara itzuli nintzen oster. 2008 urtea berriz geldirik pasa nuen istripu baten ondorioz. laz hartu nuen berriro motorra, gaur arte". Lehiatzen eman dituen bost urte hauetan ondorio batera iritsi da ibartarra: "zirkuituetan lehiatzen hasi naizenetik, kalean motor hauekin ibiltzeak ez nau erakartzen". Izatez, Koldok ez dauka kaleko motorrik. "Errepideak eta kaleak ez dira batere seguruak. Zirkuituan berriz, min hartzeko arriskua oso txikia da. Gainera,

puntutakako karneta eta radarak direla medio, errepidetan ezin da abiaduraz gozatu". Hori dela eta, gero eta jende gehiago zirkuituetara hurbiltzen ari da. Koldori askok galdetzen diote, zirkuituetan aritzeko zer nolako aldaketak egin behar dituzten motorretan, edota zein kubiarta diren egokienak. Hala ere, oraindik orain oso gutxi dira lehiaketa mailan mugitzen direnak. Gipuzkoan hiruzpalau besterik ez daude. "Ez da harritzekoa, esfortzu ekonomiko handia baita: lasterketak hemendik urrun egiten dira eta asteburua galdu behar duzu horietako batean parte hartzeko. Gertuen dugun zirkuitua berriz Pau-ekoa da. Azkenik, motorra bere puntuak edukitzeak ere diru asko balio du". Egun, Andoaingo Azkain motoak, Tolosako TRT tailerrak eta Ibarako Gurutze karrozeriak emandako laguntza txikia kenduta, Koldok bere poltsikotik ordaintzen ditu lehiatzeak dakartzan gastuak. Aurten gainera, Ibarra Racing taldeak (ibarrako beste kirol eta kultur taldeak bezala) ez du Ibarako udalaren laguntzarik jaso.

Michellin Power Cup txapelketan lan bikaina egiten ari da motor gidari ibartarra

Gozamena, besterik ez

Ahalegin ekonomiko eta personal guzti hori zertarako? Koldo Alonsok oso argi du erantzuna: gozatzeko. Motorraren gainean jartzen denean ez du gozatzea ez den beste helbururik: "31 urte ditut; adin honekin ezin dut bes-telako aspiraziorik eduki". Ahal duen arte jarraitu nahi du motorraz eta abiaduraz gozaten. ☺

Ibarra Racing taldea ezagutzen

Duela lau urte sortu zuten Koldo Alonsok eta beste lagun batzuek Ibarra Racing taldea. Lasterketetan lehiatzen hasi zenean aurkeztu zioten udalari proiektua. Gerora, Markos Landa (rally autoa) eta Ion Maritxalar (Car-krossa) batu ziren taldera. Egun, hiruek osatzen dute taldea. Modalitate ezberdinak izanik bakoitza bere aldetik ibiltzen den arren, elkarlanean aritzen dira diru-laguntzak eta babesa lortzeko.



ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana:
marrazketa, mar-
goak, eskultura.

Larrugintza ikastaroa
helduentzako
Bozetadoa, patronajea eta
larruzko tiraz josia.

Matrikula irekia
Data zehazteko

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685



Etxebarru zein kalerako
lorak.

Lorategi lanabesak.

Lora legor
eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 Tolosa


euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com

irakurri entzun Ikusi

Izan bainintzen Nafarroako errege

Aingeru Eplaza

Erresuma eta fedea trilogiaren bigarren liburua da hau. Lehenengo atalari jarraituz, Nafarroako erresumaren azken urteak kontatzen ditu. Joana Albretakoaren eta Antonio Borboikoaren seme Enrique III. aren garaira garamatza. Geldo irakurtzeko eleberria da, eta alde horretatik ahalegina eskatzen dio irakurleari, bai-na zinez ederra.



Yes Boss Food Corner

Transglobal Underground

Talde hau Erresuma Batuan sortu zen hainbat musikari desberdinen proiektua da. Musika desberdinak fusionatzen dituzte; bai mendebalde, ekialde edota Afrikako kulturetatik abiatuta, taldekide bakoitzaren sortzeko erak, estiloak eta gustuak nahasten dira. Formazioan instrumentistak, DJak, raperoak eta abeslariak ditugu, tartean Natacha Atlas abeslari ezaguna, nahiz eta azken disko honetan ez zuen parte hartu, beste proiektuetan murgilduta zebilen eta. Yes Boss Food Corner 2001ean argitaratu zen, zuzeneko ikusgarriekin ezagutzera emanez.



La nana

Sebastian Silva

Hango eta hemengo zinema jaialdietan sari mordoia irabazi dituen filma da. Chilen ekoiztutako lan honek Raquelen, estatus altuko familia bateko zerbitzariaren istorioa kontatzen du. Familiako buruak neska bat kontratatzen du Raqueli laguntzeko; azken honek maltzurki tratatuko du etorri berria, familian duen postua ez kentzeko.



24

hitzorduak

Apirilaren 23tik maiatzaren 7ra arteko

Erakusketa

Aranburu jauregia

- Apirilaren 16tik ekainaren 12ra: Nisa Goibururen "Y aun asi, somos naturaleza" erakusketa.
- Apirilaren 23tik aurrera: Adolfo Tannenbalum-en argazki erakusketa.

GKO Gallery

- Apirilaren 16tik maiatzaren 1era: Mikel Telleriaren lana erakusgai. Asteartetik igandera zabalik.



TOPIC

- Maiatza amaierara arte: Txinako Txotxongiloetako pertsonaia tradizionalak.



Zinema

Leidor

- Apirilak 25: "Hiru mosketariak" haurrentzako filma euskaraz,



17:00etan. "En tierra hostil" filma 19:30ean eta 22:00etan.

- Apirilak 26: "En tierra hostil" 20:30ean.

Zine Forum

Leidor

- Apirilak 24: "I'm not there" filma 19:30ean eta 22:30ean.

- Apirilak 29: "Un profeta" filma 19:30ean eta 21:45ean.

Ikuskizunak

Leidor

- Apirilak 30: "XL Town" antzez-lana Pikor taldearen eskutik, 20:30ean.



TOPIC

- Apirilak 23: "The con Harold Pinter y Dario Fo" lana teatro estudioaren eskutik, 20:00etan.

- Apirilak 25: "El patito feo" obra A la sombritaren eskutik, 12:30ean.

III Ñañarri Rally- sprint-a

- Apirilak 24. Irurako Ikastolak antolatuta.

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Internet + e-administrazioa	2010.04.06	20
Isurketen tratamendua	2010.04.26	30
Label arrautzak ekoiztea	2010.04.26	20
Hiriko zuhaitzak aukeratzea	2010.04.27	10
Inprimaketa kontzeptuak eta metodoak	2010.04.27	40
Internet + e-administrazioa	2010.05.03	20
Kudeaketarako aplikazio informatikoak	2010.05.21	315

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA Posta-e: info@ikastn.com
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa Webgunea: www.ikastn.com

Musika

Leidor

- Apirilak 23: Ken Zazpi taldearen "Ken Zazpi urte" kontzertua 22:30ean.

Bonberenea

- Apirilak 23, ostirala, Atom Rhumba eta Gora Japon taldeak

- Apirilak 24, larunbata, Mantis eta Radio Plebe taldeak

Goardiako farmaziak

Ostirala, 23 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Asteazkena, 28 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	Astelehena, 3 Morant R. (Zabalzarreta, 1) Tolosa
Larunbata, 24 Morant R. (Zabalzarreta, 1) Tolosa	Osteguna, 29 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Asteartea, 4 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa
Igandea, 25 Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa	Ostirala, 30 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Asteazkena, 5 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
Astelehena, 26 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Larunbata, 1 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Osteguna, 6 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Asteartea, 27 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Igandea, 2 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Ostirala, 7 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albartzur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(larrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Berastegi-Elduain	943 681 134	Ur zerbitzuak (aberiak)
Medikua	943 683 361	Iurreamendi egoitza
Bidegoian	943 683 361	Larrialdia, Suhiltzaileak
Medikua	943 683 361	DYA
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 681 134	Gurutze Gorria
Osasun etxea	943 672 411	943 674 888
Ikaztegieta	943 653 329	Ertzantza
Medikua	943 653 329	Tolosa Gasa
Irura	943 690 720	Lizartza
Osasun zentroa	943 650 931	Medikua
Tolosa	943 006 800	Orendain
Anbulatorioa, larriald.	943 006 800	Medikua
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Medikua

- Apirilak 23: Palestinaren aldeko Gipuzkoako plataformaren hitzaldia 18:00etan.

- Apirilak 29: "La guerra de la independenvia a traves del general Alava" Kutxa aulak eskainita, 19:30ean.

Liburuaren nazioarteko eguna

- Apirilak 23: Tolosako Harizpe jubilatua elkartean ipuin eta istorioen irakurketa 19:00etan. Tolosako Udal Liburutegiak antolatuta.



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA



Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irura Faxa. 943 694291
rotulosvicente@Jel.es



- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886 - 943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259 - 943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615 - 943 671 149

Muxutruk

lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratu ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644.453.621

• Ingeleseko klaseak ematen dira, bakarka edo taldean, maila desberdinak. Irakasle titulu-duna. 664.160.268

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645.718.536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616.278.843

• Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631

“Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125”

• Etxebizitza abuhardilalatu salgai Montezkue auzoan. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa badu. Eguzkitsua eta bista onak. 685.765.855

Salgai

- Spaniel txakur kumea salgai 678.923.512
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605.717.858
- Igini markako akordeoia saltzen da. Tamañaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoak opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

Horoskopoa

Apirilaren 23tik maiatzaren 7ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Bizitzarekiko jarrera aldatu duzuenetik alaiago zabilzta. Botila erdi beteak ikusten jarraitu behar duzu, horrela errazago egingo baitzaizu eguneroko arazoerik aurre egitea.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Norbaiti, zerbaiti atea itxi beharrean aurkituko zara. Arrazoia eragiten dizun sufimendua da. Zerenak direla uste duzu azken egun hauetako tripa-ko minak?



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Giro ona izango duzue etxean, armoniazko egunak datoz. Gustura egongo zarete elkarrekin. Aukera bikaina da buruan daukazun kutixia hori eskatzeko, umoretsu dago eta.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Oso gardena zara. Ezin duzu gauza bat pentsatu eta beste bat adierazi. Ez ibili beraz disimuluan, antzeman egingo dizute. Arropa berri gehiago erosi aurretik, txukundu armairua, lehertuko da bestela!



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Aldaketetara egokitzeko erraztasuna daukazu. Ongi etorriko zaizu, lan arloan zure eguneroko dinamika aldatuko baita. Medikuari bisita, baina gaixoaren laguntza moduan.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Alergia ez ezik, zuen arteko maitasuna loratuko da udaberrian. Elkarrenganako desioa sentituko duzue, eta berau asetu beharra ere bai. Errutina hausteak izan da gakoa.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Osasun arazoak, gehien bat estresak eraginda. Ezetz esaten ikasi behar duzu. Poltsiko huts hori zertxobait beteko duen diru sarrera izango duzu hilabete honetan.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Ez daukazue zertan beti zure edo bere lagunekin ibili behar duzuen erabakitzen aritu beharrik. Ondo etorriko zaizue asteburuetan banatzea. Lagunek ere eskertuko dizuete.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Zure hitzek, txantxek... min egin diezaiokete, pentsatu non dagoen barre eragitearen eta min egitearen muga. Kristala behin apurtzen da soilik, eta galera handia litzateke zuretzat.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Beste behin mesede eske etorriko zaizu. Zuk erabaki, baina ezeko batekin eten egingo zenuke zuzana jotzeko duen joera. Mesedeak eskatu ere egin daitezke, egunotan laguntzaren beharrean suertatuko zara.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Eguneroko gauza txikiren bat izango da zuen artean sua piztuko duena. Argitu arauak eta idatzita utzi, haserraldi asko ekidingo dituzue horrela. Matxurak etxean edo autoan.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Pozik ibiliko zara, bereziki horretarako arrazoirik ez baduzu ere. Maitasunean, lagun artean, etxean gustura sentituko zara. Lanean ordea izango da eragozpenik, baina umore horrekin erraz gaintutuko duzu.



Bete-betean
asmatzeko
biderik onena!!



Berrikuntza ardatz duten
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

ATE IREKIAK

Maiatzaren 8an, larunbatean

10:00 etan

4. Eraikineko Harrera Nagusian

ZATOZI!

Goierri 
eskola



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA

Goi eta erdi mailako heziketa zikloak

www.inmakuladatolosa.com



Ate irekiak: maiatzak 13 15:30-18:30
Tel: 943 673 629

GOI MAILA:

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

ERDI MAILA:

- Erizaintza Laguntzailea
- Farmazi Teknikaria



Guk, La Salle Berrozpe, eta Zuk?



Ate Irekiak - Heziketa Zikloak

Apirilak 29, 16:30 - 19:30

LaSalle Berrozpe



Andoain